

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Udala COVID19aren aurreko egoera finantzieroa berreskuratzeko bidean da eta aurreikusitakoa baino 6,6 milioi euro gehiago jaso ditu

Udalak 2021.urtea itxi du 2,7 milioi euroko superabitarekin

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok azaldu du, 2022ko ekitaldira 68,3 milioi euro gehitu direla inbertsioak egiteko; horietatik, 46 esleituta daude edo exekutatzeko ari dira, eta 22,3 laster esleituko dira

Donostiako Udalak 2021eko aurrekontuaren likidazioa aurkeztu du. Eta 2021.urtean Udalak COVID19aren aurreko egoera finantzieroa berreskuratzeko bidea hartu du. Hala, aurreikusitakoa baino 6,6 milioi euro gehiago jaso ditu eta ekitaldia 2,7 milioi euroko superabitarekin itxi du.

Aurkeztutako likidazioa soilik Udalaren aurrekontu-ekitaldiarena da eta, beraz, ez ditu kontuan hartzen Udalaren mendekoak diren 14 udal-elkarte eta -sozietateak. Elkarte eta sozietateek kontuak administrazio kontseiluetan aurkeztuko dituzte. Hala ere, esan beharra dago, aurrekontuaren likidazioak udal-elkarte eta -sozietateek euren kontuak abenduaren 31ko datarekin orekatzeko behar adina baliabide finantzieroa aurreikusten dituela.

Diru-sarrera arruntak

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok honakoa azpimarratu du: "Diru-sarrera arruntak 6,6 milioi euro handiagoak izateak aurreikusitako diru-sarreraren %2 da. Hortaz, kontuan hartuta 2020an izandako gutxitzea, urte zail baten ondoren berreskuratzeko bidean jartzen gaitu".

Eta handitze horren arrazoi nagusia da, Udalak Finantziatzeko Foru Funtساتik datorren diru-sarrera aurreikusitakoa baino 5,8 milioi euro gehiago izan dela. Dena dela, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere likidazioa egin duenean, Udalari 7,9 milioi euro bideratu dizkio, eta diru kopuru hori 2022ko ekitaldian sartuko da.

Tasa eta zergen diru-sarrerei buruz, igoera handiena obrekin jabari publikoa okupatzeko ordaintzen den tasatik izandako diru-sarrera izan da. Urte amaieran aurreikusitakoa baino 1,2 milioi euro gehiago jaso ziren. Halaber, Udalak 1,1 milioi euro gehiago jaso ditu Zergaren Errolda handitu delako, eta gainera, hondakinak biltzeko eta tratatzeko tasan aurreikusitakoa baino 0,4 milioi euro gehiago jaso ditu.

Bestalde, COVID19aren osasun-larrialdiak hainbat sektoretan eragindako murrizketek zenbait tasa eta zergen diru-sarrera txikiagoak izatea ekarri dute. Hortaz, Udalak 0,6 milioi euro gutxiago jaso ditu ur eta saneamendu tasan, zerbitzuen sektorearen ur-kontsumoa txikiagoa izan delako, ekitaldiaren zati bat itxita egon behar izan dutelako.

Mugikortasunak izan zituen murrizketek eragina izan dute TAOren diru-sarrerak aurreikusitakoa baino 0,3 milioi euro gutxiagoak izateko. Era berean, aparkalekuen kanon gehigarria aurreikusitakoa baino 0,3 milioi euro txikiagoa izan da.

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Gainera Udalak 0,4 milioi euro gutxiago jaso ditu ICIO delako zergatik, baimen kopurua gutxitu delako.

Aparteko diru-sarrerak eta funtsen erreserba

Aparteko diru-sarrerei buruz, aurreikuspenak bete dira, Europako Funtsei buruz egindakoan izan ezik. Gai honi buruz egindako aurreikuspena 2022ra eramán da. Era berean, Udalak ez du eskatu aurreikusita zuen 13 milioi euroko mailegua, izan ere, diru-sarrera arruntetik jasotako kopuruarekin konpentsatu da, bereziki, Udalak Finantziatzeko Foru Funtساتik jasotako kopuruarekin.

Dena den, Donostiako Udalak 19,9 milioi eurotako erreserba egin du, baldin eta sortu dituen diru-sarrera guztiak kobratzen ez baditu baliabideak izateko. Horrenbestez, 2022ko kontuetan ez da desorekarik sortuko, eta hornitzaileek fakturak batez beste 30 eta 40 egun artean kobratu ahal izatea bermatuko du. 2021ean ordaintzeko batez besteko epea 44 egunetakoa izan zen.

Gastu arruntak eta inbertsioak

Bestalde, iazko ekitaldian gastu arrunta aurreikusitakoa baino 10,7 milioi euro txikiagoa izan da - 1,3 langile-gastuan, 6 funtzionamendu gastutan, 2,4 diru-laguntzatan, eta 1 karga finantzieroa -.

Inbertsioei buruz, Udalak aurreikusitakoa baino 17 milioi euro gutxiago gastatu ditu.

Gainera, 2022ko ekitaldian pendiente zeuden 68,3 milioi euroko inbertsioak sartu dira. Horietatik, 46 milioi euro (%67) esleituta dauden eta burutzen ari diren proiektuak dira, eta 22,3 lizitazioan dauden eta laster esleituko diren proiektuak dira, besteak beste, segidakoak: Loiolako Kuartelen salerosketa, Eskusaitzetako urbanizazioa, Ekialdeko Barrutirako eraikina egokitzea edo Europako Funtsetan sartutako hainbat jarduketa.

Zorpetze-maila

2021eko likidazioak erakusten du, Udalak arrazoizko zorpetze maila duela. Finantza-entitateei itzuli beharreko zorra 72,8 milioi eurokoa da. Eta zifra honek diru-sarrera arruntentzen %22,27 ordezkatzeko du. Gogoratu behar da, udalentsat arrazoizkotzat jotzen den zifra %72 dela, eta, gainera, Europar Batasunak gai honetan ezartzen duen limitea %70 dela.